

IES IBARREKOLANDA BHI



ZUZENDARITZA PROIEKTUA
2023-2027

PEDRO ZUBEROGOITIA ESPILLA

AURKIBIDEA

1. Proiektuaren justifikazioa.
 - 1.1. Justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza taldearen identifikazioa.
 - 1.2. Zuzendaritza-proiektuaren lehentasunak.
 - 1.3. Prozesuaren deskribapena.
2. Ikastetxearen azterketa diagnostikoa.
 - 2.1. Testuinguruaren analisisa.
 - 2.1.1. Barne-analisisa.
 - 2.1.2. Kanpo-analisisa.
 - 2.2. Indarguneak eta hobetzeko eremuak.
3. Erronkak (hobetzeko eremuak) helburu bihurtzen.
4. Helburuetatik ekintzetara.
5. Proiektuaren komunikazioa.
6. Proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza.

1. PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

1.1. Justifikazioa, aurkezpena eta zuzendaritza taldearen identifikazioa.

Zuzendaritza Proiektu honen atzean dagoena erraz azaldu ahal da: Ibarrekolanda BHIren alde positiboak indartu eta garatzeko dituen zenbait arlori bultzada sendo bat emateko gogoia. Apurka-apurka, ia oharkabea, pandemiaren urte astunetan gogo hori mamitzen joan da egun Zuzendaritza osatzen dugunon barruan. Pausoa emateko azken pizgarria 2022ko martxoko egunak izan ziren: ikastetxearen etorkizuna kolokan jarri zuen Hezkuntza Saitetik zetorren erabaki batek baina hezkuntza komunitatearen erantzuna itzela izan zen eta zentroak bere izaerari eutsi zion.

Inork espero ez genuen erreakzio horren indarrak Zuzendaritza Taldea osatzera eta, ondorioz, Zuzendaritza Proiektua idaztera bultzatu gintuen. Hona hemen taldeko kideon aurkezpena:

Zuzendaria: Pedro Zuberogoitia, 2019-20 ikasturtetik Geografia eta Historiako irakaslea.

Ikasketaburua: Eider Mendizabal, 2014-15 ikasturtetik Gorputz Hezkuntzako irakaslea.

Zuzendariordea: Gorka Ezkibela, 2017-18 ikasturtetik IKTko irakaslea.

Ikasketaburu ondokoa: Ana María Diego, 2015-16 ikasturtetik Filosofia irakaslea eta 2018-22 laurtekoan Ikasketaburu ondokoa.

Idazkaria: Aritz Llantada, 2020-21 ikasturtetik IKTko irakaslea.

1.2. Zuzendaritza proiektuaren lehentasunak.

Ondorengo hauek dira gure proiektuan zehaztu ditugun lehentasunak:

- **Plangintza estrategikoa** garatu, gainbegiratu eta ebaluatzea.
- **Lidergo Pedagogikoa.** Ikas-irakaskuntza prozesuen kalitatea eta haien ebaluazioa bideratu.
- **Eraldaketarako antolaketa** zehaztu inklusioaren printzipioetan oinarrituta.

1.3. Zuzendaritza proiektua egiteko prozesua.

Idazte-prozesuak hiru fase izan ditu.

- 1. fasea. Abiapuntua, zuzendaritza-funtzioaren marko konpetentziala oinarri hartuta, proiektuaren lehentasunak zehaztea izan da. Honekin batera, hurrengo faserako galdetegiak prestatu genituen.
- 2. fasea. Jarraian, barne eta kanpo analisiari ekin diogu. Horretarako, oinarritzko dokumentuen eta proiektuen balorazioa eta ikastetxeko baliabideen kudeaketa aztertu ditugu. Ondoren, galdetegi bana bidali diegu irakasle, ikasle, familia eta gainontzeko langileei hezkuntza komunitatearen iritziak jasotzeko asmoz. Azkenik, kanpo analisia gehitu dugu. Informazioa hau guztia eskuratuta, **indarguneak** eta **hobetzeko eremuak** identifikatu eta zehaztu ditugu.
- 3. fasea. Puntu honetara helduta, hobetzeko eremuak helburu bihurtu eta garrantziaren arabera ordenatu ditugu. Jarraian, helburuak ekintzekin eta jarraipen adierazleekin lotu eta denboralizazioa zehaztu dugu. Ondoren, Zuzendaritza Proiektuaren komunikazioa zelan egingo den zehaztu dugu. Amaitzeko, berriz, Aginte koadroaren eraketa geratu zaigu. Bertan, Proiektuaren jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza jasotzen dira.

2. IKASTETXEAREN AZTERKETA DIAGNOSTIKOA.

2.1. Abiapuntua: testuinguruaren analisia.

2.1.1. Barne analisia.

Gorago adierazi dugun bezala, oinarrizko dokumentuen eta proiektuen balorazioa eta gure baliabideen kudeaketa aztertu ditugu. Informazio horri hezkuntza komunitateari egindako galdetegiena gehitu diogu eta emaitza ondorengo lerrotan jaso dugu:

2.1.1.1. Oinarrizko dokumentuak.

- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP): eguneratu behar da.
- Plan Estrategikoa (Eraldatzen, Kalitatea Hezkuntzan...): ez dago.
- Aurreko Zuzendaritza-proiektua: eginda dago.
- Antolakuntza eta Jarduera-araudia (AJA): eguneratua dago.
- Ikastetxearen Curriculum Proiektua (ICP): egin behar da.
- Programazio didaktikoak: eginda dago.
- Tutoretza/Orientazio Plana: eginda dago.
- Aniztasunari Erantzuteko Plana: – Kulturartekotasuna Plana – Hizkuntza Indartzeko Plana: egin behar da.
- Ikastetxearen Hizkuntza Proiektua – Hizkuntza-normalkuntza – Hizkuntzen Tratamendua Integratua – Esperientzia eleaniztunak: egin behar da.
- Bizikidetzeta Plana: egin behar da.
- Hezkidetzeta eta Genero-indarkeriari aurre egiteko plana: eginda dago.
- Ikastetxearen Urteko Plana: eginda dago.
- Ikastetxearen Urteko Memoria: iazkoa falta zaigu.
- Komunikazio Plana – Kanpoko komunikazioa - Barne komunikazioa: egin behar da.
- Harrera Plana: eguneratu behar da.
- Irakurketa Plana: eguneratu behar da.
- Prestakuntza Plana: egin behar da.
- Digitalizazio Plana: egiten ari gara.

2.1.1.2. Hezkuntza-komunitateari egindako inkesten emaitza.

Inkestetatik honako indargune eta ahulguneak atera dira:

Indarguneak:

- Erreferentea izatea Arte Plastiko eta Musika eta Arte Eszenikoetan.
- Zentroaren kokapena.
- Inklusibitatea, askatasuna eta segurtasuna bermatzen dituen giroa.
- Irakasleen –eta zenbait ikasleren– inplikazioa proiektuetan eta, oro har, zentroko bizitzan.
- Batxilergo modalitate guztiak eskaintzea.
- Irteera eta jarduera osagarrien aberastasuna.
- Lorategia eta ortua.

Ahulguneak:

- Metodologia berriak ezartzeko erresistentzia, inertziak pisu handia daukate.
- Euskararen maila eta erabilera pobreak.
- DBHko egoera: ikasle gutxi eta motibazio gutxikoak.
- Ikasleen konpromiso maila eta lan egiteko duten ohitura eskasa.
- Irakasleen artean dagoen koordinazioa –ikastaldeetan, mintegietan- ez da nahikoa.
- Egiten dugun ebaluazioaren inguruan hausnarketa bat egin beharko genuke.
- Ordu gutxi daude digitalizazioak dakarren lanari aurre egiteko.
- Orientatzaile eta DBHko tutoreen arteko bilerak mailaka barik zikloka egiten dira eta orduategitik kanpo ibili behar gara koordinatzeko tarteak bilatzen.
- Zikloen eta batxilergoaren arteko harremanak indartu.
- Komunikazio kanalak argitu eta bateratu behar dira. Orain zaila da informazioa bilatzea.
- Wifi sarea indar barik heltzen da zenbait lekutara.
- Disziplina arazoan aurrean ez da beti jokatzeko modu bateratuan.

- Liburutegia falta da: irakurzaletasuna bultzatzeko eta lan pertsonala egiteko. Liburuak ikusteko, aurkezteko, irakurtzeko, idazleak ezagutzeko.
- Laborategiak zaharkituta daude.
- Ikasle eta familiekin bilerak egin ahal izateko leku edo gela gehiago behar dira.
- Komunak zaharkituta daude.
- Gela batzuen akustika eskasa da.
- Kanpoko pabilioiaren argien kutxa ez dago oso eskuragarri eta sabaian itokinak daude.
- Kudeaketa "berdea" (erosketak, hondakinak...) eta energia aurrezteko neurriak – argiekin zein berokuntzarekin– ezarri.
- Jantokiko antolakuntza ere hobetu beharko genuke (elikadura osasuntsua eta ekonomia zirkularra sustatuz).

Proiektuak aztertzean, berriz, honako indargune eta ahulguneak atera dira:

PROIEKTUA	INDARGUNEAK	AHULGUNEAK
Hizkuntza Normalkuntza	- Taldearen gogoak gauzak egiteko - Osaketa: zenbait mintegitako irakasleak	- Informazioa zabaltzeko arazoak - Proiektu zabalegia, denbora gutxi, ez gara guztira heltzen
Agenda 2030	-Oraingo proiektuak aurrekoak baino helburu zabalagoak ditu ikuspegi ekologikoa eta gizarte arazoak lotzen baititu. - Ortua. Helburu didaktoekin lotuta, aurten baratza ardatz, STEAM proiektua onartuta dago	- Zaila da ikasle bolondresak lortzea. - Familiekiko eta auzoarekiko harremana gehiago landu behar da.
Hedatze	- Ikasle batzuentzat tresna oso emankorra eguneroko klaseetako zailtasunei aurre egiteko. - Tutoreen laguntza eta Hedatzeko irakasleen inplikazioa.	- Tailer batzuek ez dute arrakastarik. - Ikasleen proposamenak lantzerakoan koordinazio falta.
Hezkidetz	- Ikasleen interesa	- Ordu gehiago behar dira

	- Irakasle eta ikasleen ikuspegia antzekoa da	
Zinema Ikustezina	- Hamar urte eta gero, jarduera finkatuta dago, klasiko bihurtuta.	- Ikasturtean zehar jarraipena emango dion zerbait behar da.

2.1.2. Kanpo analisia

Atal honetan kanpoko zenbait aldagaik gurean izan ahal duten eragina aztertu dugu.

Horretarako ondorengo koadroa atondu dugu:

ALDAGAIK	MEHATXUAK eta AUKERAK
Biztanleriaren bilakaera	<p>Mehatxua: Natalitate-tasaren jaitsiera dela eta, gero eta ume gutxiago dago; ondorioz, DBHko geletan ikasle gutxiago ditugu.</p> <p>Aukera: Ratioa jaitsita errazagoa izango da arloka – proiektuak ardatz hartuta- lan egitea.</p>
Inmigrazioa	<p>Mehatxua: etorkinen sema-alaben kopurua handitzeak berez gaitza den euskararen erabilera igotzeko arronka are gehiago zailtzen du.</p> <p>Aukera: Inklusibitatea eta ekitatearen bidean bide berriak probatzeko eta kulturartekotasuna garatzeko aukera ematen digu</p>
Harremanak inguruko ikastetxeekin	<p>Mehatxua: ez dago.</p> <p>Aukera: gure "iturria" diren ikastetxeekin –Arangoiti LHI eta Deustuko HLHI- harremanak estutuko ditugu.</p>
LOMLOE eta EAEko Dekretu berria	<p>Aukera: Lege berria metodologia aldaketan eta ikaskuntza-prozesuan eraldaketan sakontzeko akuilua izango da.</p> <p>Mehatxua: aldaketa asko denbora tarte laburrean, itotzeko arriskua.</p>

2.2. Indarguneak eta hobetzeko eremuak

INDARGUNEAK	HOBETZEKO EREMUAK
<ul style="list-style-type: none"> - Plastikoan eta eszenikoan erreferentea izatea, esperientzia arloan. - Formakuntza osagarriak (batxillerato artistikoa eta grafikako eta GKAT-ko zikloak. - Ikasleen aniztasuna, ikastetxeko giroa, giro inklusiboa. - Proiektu sendoak eta irakasle inplikatuak beraietan. Dinamismoa. - Irteera ugari eta egokiak: elurretara, surfa, ikasketa bidaiak, orlak, kafeak, dantzak, euskara bidaiak. - Jazarpen homofoborik gabeko eremu aurrerakoia izatea. - Ikasleen osasun mentala kontuan hartzea. - Batxilergoko eskaintza anitza. - Kartelak , aktibitateak eta oharrak beti euskaraz. - Kokapena. - Lan egiteko giro ona, guztion inplikazioa arazoak daudenean. - Errespetua desberdintasunaren aurrean, ez bakarrik LGTBI kolektiboarentzat baizik eta normaltasunean kabitzen ez den edonorentzat. - Zentroarekiko irakasle askok duten engaiamendua. - Grafikako Zikloarentzat oso ona da Batxilergo artistikoa zentruan bertan egotea. Diseinu giroa susmatzen da. -Euskararekiko normalkultza taldeak duen konpromezua. - Ortua. Lorategia. - Zuzendaritza trinkoa eta koordinatua. - Eraikina (handia, gelak zabalak, laborategiak..) - Bizikidetzaren nabarmenduko nuke. Institutu honek ikasleen ongizatea asko bultzatzen duela iruditzen zait. Giro berezia dago. - Irakasleen artean komunikazioa bultzatzeko erabiltzen diren ekintzak goraiatu behar dira (adibidez, berbakafea). 	<ul style="list-style-type: none"> - Metodologia eta ebaluazio eredu berriak ezartzeko inertzirik duten pisuari aurre egin beharra. - Irakasleen artean dagoen koordinazioa – ikastaldeetan, mintegietan, proiektuetan– ez da nahikoa. - Ordu gutxi daude digitalizazioak dakarren lanari aurre egiteko. - Komunikazio kanalak argitu eta bateratu behar dira. Orain zaila da informazioa bilatzea. - Euskararen maila eta erabilera pobreak ikasleen artean. - Gabeziak hezkuntza komunitatearen ongizatean eta elkarbizitzan. - Harremanak estutu familiekin eta auzoarekin. - Azpiegiturak berriztu. - Curriculum berriaren ezarpena.

3. ERRONKAK (HOBETZEKO EREMUAK) HELBURU BIHURTZEN

Atal honetan kanpo eta barne-analisietan antzemandako gabeziak edota hobetzeko eremuak zerrendatu eta garrantziaren arabera sailkatu ditugu. Horiei Hezkuntza Sailak ikasturte hasierako ebazpenean zehaztutako ildo estrategiko nagusia -besteak jasota baitaude gure hobetzeko eremuetan- gehitu diogu.

ANALISIAREN ONDORIOAK	KONPETENTZIAREKIN LOTURA	HELBURUA ZEHAZTU
Hobetzeko eremua 1: Metodologia eta ebaluazio eredu berriak ezartzeko inertzien duten pisuari aurre egin beharra.	K-2: Eraldaketarako antolaketa K-3: Lidergo pedagogikoa K-4: Lidergo partekatua K-5: Ikasle guztien arrakasta K-8: Elkarrekin ikasten duen komunitatea	Programazioak eredu berriari jarraituz egin eta bertan proiektuek duten lekua handitu.
Hobetzeko eremua 2: Irakasleen artean dagoen koordinazioa – ikastaldeetan, mintegietan, proiektuetan- ez da nahikoa.	K-2: Eraldaketarako antoketa K-3: Lidergo pedagogikoa K-5: Ikasle guztien arrakasta	Barne-antolaketan aldaketak egin irakasleen arteko koordinazioa – ikastaldeetan, mintegietan, proiektuetan- hobetzeko.
Hobetzeko eremua 3: Ordu gutxi daude digitalizazioak dakarren lanari aurre egiteko.	K-2: Eraldaketarako antolaketa K-4: Lidergo partekatua	Digitalizazio plana egin eta garatu
Hobetzeko eremua 4: Komunikazio kanalak argitu eta bateratu behar dira. Orain zaila da informazioa bilatzea.	K-2: Eraldaketarako antolaketa K-4: Lidergo partekatua K-9: Parte-hartze demokratikoa	Barne-komunikazioan aldaketak gauzatu.
Hobetzeko eremua 5: Euskararen maila eta erabilera pobreak.	K-3: Lidergo pedagogikoa K-5: Ikasle guztien arrakasta K-10: Kanpo harremanak	HNBk jorratutako bideetan sakondu

<p>Hobetzeko eremua 6: Gabeziak hezkuntza komunitatearen ongizatean eta elkarbizitzan.</p>	<p>K-1. Plangintza estrategikoa K-5: Ikasle guztien arrakasta K-6. Printzipio etikoak K-7. Elkarbizitza positiboa K-9. Parte-hartze demokratikoa</p>	<p>Hezkuntza komunitatearen ongizatea eta elkarbizitza hobetu.</p> <p>Harremanetan inbertitu Gatazkak ikuspegi eraikitzailetik bideratu.</p>
<p>Hobetzeko eremua 7: Harremanak estutu familiekin eta auzoarekin.</p>	<p>K-4: Lidergo partekatua K-9: Parte-hartze demokratikoa K-10: Kanpo harremanak</p>	<p>Familia eta inguruko ikastetxe elkarte eta abarrekin elkarlanean aritzeko betiko bideak hobetu eta berriak sortu.</p>
<p>Hobetzeko eremua 8: Azpiegiturak berriztu.</p>	<p>K-1. Plangintza estrategikoa K-2: Eraldaketarako antolaketa K-6: Printzipio etikoak</p>	<p>Hainbat obra eta aldaketa egin eraikinean zein kanpoaldean.</p>
<p>H. Sailaren ildoak: Curriculum berriaren ezarpena.</p>	<p>K-3: Lidergo pedagogikoa K-4: Lidergo partekatua</p>	<p>Ikastetxeko Curriculum Proiektua egin ikasleei erantzun egokia eman ahal izateko, irakasleen formazioa eta hausnarketaren ondorioz.</p>

4. HELBURUETATIK EKINTZETARA

HELBURUETATIK EKINTZETARA								
HELBURUAK	EKINTZA	JARRAIPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA					
			23/24	24/25	25/26	26/27		
1. Ikastetxeko Curriculum Proiektua egin ikasleei erantzun egokia eman ahal izateko, irakasleen formazioa eta hausnarketaren ondorioz.	EK1.1. Lau urterako prozesua planifikatu. EK1.2. Egin beharrekoak zehaztu, lantaldeak sortu. EK1.3. Formazio-plana diseinatu eta gauzatu.	-Planifikazioa egin da eta IUPan jaso da.	●					
		-BPko aktan jaso da lantalde bakoitzeko kide eta zereginak zeintzuk diren.	●					
		- Irakasleek egindako formazioaren balorazioa jaso da.	●	●	●	●		
		- Irakasleen %80ak parte hartu du formazioetan.	●	●	●	●		
2. Programazioak eredu berriari jarraituz egin eta bertan proiektuek duten lekua handitu.	EK2.1. Programazioak egin eredu berriari eutsiz. EK2.2. Arlokako eta proiektuetan oinarritutako programazioak lehenetsi. EK3.3. Formazio plana diseinatu.	- Programazioak urrirako egin dira.	●					
		- Maila eta taldeetan egiten da lan arloka/proiektuka.	●	●	●			
		- Irakasleek egin dute formazio plana.	●					

3. Barne- antolaketan aldaketak egin irakasleen arteko koordinazioa – ikastaldeen, mintegietan, proiektuetan- hobetzeko.	EK3.1. Zehaztu une bat ikastaldeko irakasleak elkartzeko. Bilerak egin. EK3.2. Mintegi bileren maiztasuna finkatu eta euren eraginkortasuna handitu. EK3.3. Plangintza bat egin proiektuak eta euren arteko sinergiak indartzeko.	- Ikastaldeko bilerak egin dira ebaluazio saioez gain.	•	•	•	•
		- Mintegi bilerak modu sistematikoan egin dira gaiorden landuarekin (BPTik datozen gaiak gehi mintegikoak)	•	•	•	•
		- Proiektuak indartu egin dira.	•	•	•	•
4. Digitalizazio plana egin eta garatu hezkuntza-komunitateko kideon gaitasun digitalak hobetzeko	EK4.1. Digitalizazio plana garatu. - Zaintza koaderno digitalizatzea - Kronograma Google calendarrera pasatzea. - Inika eta irakaslearen koaderno bateratzearen konbenientzia aztertu.	- Zaintza koaderno digitalizatu egin da	•			
		Kronograma Google calendarrera pasatu da	•			
		- Inika eta irakaslearen koaderno bateratu dira	•	•		
5. Euskara maila igo eta erabilera sustatu.	EK5.1. HNBren lan-ildoak indartu EK5. 2. Ahozotasuna lantzeko klaseak eskaini EK5. 3. Irakurketa Plana berritu EK5. 4. Elkarhitz proiektuarekin segi	- Berbakafe, berbodromo eta abar egin dira.	•	•	•	•
		- Ahozotasun klaseak antolatu dira.	•	•		
		- Irakurketa Plana landu da.	•	•		

		- Elkarhitz proiektua gauzatu dugu	•	•		
6. Barne-komunikazioan aldaketak gauzatu.	EK6.1. Komunikazio kanalak bateratu.	- Mezuak bateratu dira	•	•		
	EK6.2. Buletin bat egin hamabostero zentroko berriekin.	- Barne-buletina egin da.	•	•		
7. Familia eta inguruko ikastetxe elkarte eta abarrekin elkarlean aritzeko betiko bideak hobetu eta berriak sortu.	EK7.1. IGErekin batera Jarduera plana egin.	- Jarduera Plana martxan jarri da	•			
	EK7.2. Auzoko elkarteekin harremanak estutu.	- Inguruko elkarteekin ekitaldiak elkarlanean egiteko oinarriak jarri dira.	•	•		
	EK7. 3. Inguruko ikastetxeekin harremanak estutu.	- Gurera etorri ahal diren ikasleei zentroaren berri eman.	•	•	•	•
8. Azpiegiturak berriztu eraikinean zein kanpoaldean eta Irudia Plana ondu da	EK8. 1. Konponketak egin frontoiko sabaian.	- Frontoiko konponketa bideratu da.	•			
	EK8. 2. Energia aurrezteko hainbat aldaketa egin.	- Energia aurrezteko plana landu da.	•	•		
	EK8. 3. Liburutegia eta laborategiak berriztu.	- Liburutegiaren kokapen posibleak aztertu dira	•			

	<p>EK8. 4. Aurrealdean, patioko hormetan, sarreran zein beste gune batzuetan gure irudia islatzeko aldaketak egin</p> <p>EK8.5. Komunak berriztu.</p> <p>EK8.6. Gelen akustika hobetu.</p>	- Laborategiak aldatzeko plangintza prestatu da.	•	•			
		- Irudiaren inguruko plana ondu da	•				
		- Komunak berrizteko aukerak aztertu dira		•	•		
		- Akustika hobetzeko azterketa egin da.		•	•		
9. Elkarbizitza hobetu	EK9.1. Bizikidetza plana berriztu	- Bizikidetza plana berriztu da eta IUPean jaso da	•	•			

5. PROIEKTUAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazio-prozesua hainbat une eta estamentutan egingo dugu. Hona hemen pauso horiek kronologikoki ordenatuta:

Irakasleei:

Nork: Zuzendaritza Taldeak

Non eta nola: martxoaren 1ean egingo dugun klaustroan.

Ordezkaritza Organo Gorenari:

Nork: Zuzendariak

Non eta nola: martxoaren 1ean egingo dugun OOGren bileran

Guraso eta tutoreei:

Nork: Zuzendaritza Taldeak

Non eta nola: martxoko lehen astean Inikaren bitartez.

Ikasleei:

Nork: Zuzendaritza Taldeak

Non eta nola: martxoko lehen astean. Ordezkarien bilera batean aurkezpen laburra eta, ondoren, guztiei eposta bitartez.

Pertsonal ez-dozentea:

Nork: Zuzendaritza Taldeak

Non eta nola: martxoko lehen astean bilera baten bitartez.

6. PROIEKTUAREN JARRAIPENA, EBALUAZIOA ETA DOIKUNTZA

Proiektua lantzea lan nekeza eta konplexua da baina bere eragina hutsaren hurrengo izango litzateke indarrean egongo den lau urteetan zehar behar bezalako jarraipena, ebaluazioa eta doikuntza egingo ez balitzaio. Helburu hori du, hain zuzen ere, ondorengo koadroak:

2023-2027 AGINTE KOADROA							
	KONPETENTZIAREKIN LOTURA	HELBURUAK	LORPEN ADIERAZLEAK	DENBORALIZAZIOA			
				23-24	24-25	25-26	26-27
1.H	K-2: Eraldaketarko antolaketa K-3: Lidergo pedagogikoa K-4: Lidergo partekatua K-5: Ikasle guztien arrakasta K-8: Elkarrekin ikasten duen komunitatea	1. Ikastetxeko Curriculum Proiektua egin ikasleei erantzun egokia eman ahal izateko, irakasleen formazioa eta hausnarketaren ondorioz.	-- Lantaldeek egin duten bilera kopurua .	●	●		
			- Irakasleen %80ak parte hartu du formazioetan	●	●		
2.H	K-2: Eraldaketarako antoketa K-3: Lidergo pedagogikoa	2. Programazioak eredu berriari jarraituz egin eta bertan proiektuek duten lekua handitu.	- Zenbat programazio egin dira urrirako	●			
			- Zenbat maila eta taldetan egiten den lan arloka/proiektuka	●	●	●	●
			- Zenbat irakaslek egin dute formazio plana.	●	●		

3.H	K-2: Eraldaketarako antolaketa K-4: Lidergo partekatua	3. Barne- antolaketan aldaketak egin irakasleen arteko koordinazioa – ikastaldeetan, mintegietan, proiektuetan- hobetzeko.	- Ikastaldeko zenbat bilera egiten diren	•			
			- Zenbat mintegi bilera egiten diren eta zein gaiordenarekin	•			
			- Proiektuetako bileren kopurua	•	•		
4.H	K-2: Eraldaketarako antolaketa K-4: Lidergo partekatua K-9: Parte-hartze demokratikoa	4. Digitalizazio plana egin eta garatu hezkuntza-komunitateko kideon gaitasun digitalak hobetzeko	- Zaintza guztiak era digitalean kudeatu dira	•			
			- Irteera, tailer eta antzeko guztiak Calendarren jaso dira.	•			
			- Zenbat irakasle koaderno dauden Inikan	•	•		
5.H	K-3: Lidergo pedagogikoa K-10: Kanpo harremanak	5. Euskara maila igo eta erabilera sustatu	Zenbat berbakafe, berbodromo eta abar egiten diren.	•	•		
			Zenbat ikasle apuntatzen diren ahozkotasan klaseetara	•			
			Zenbat ekintza egiten diren Irakurketa Planaren barruan	•	•	•	•
			Elkarhitz proiektuan inplikatu den irakasle kopurua	•	•		

6.H	K-1. Plangintza estrategikoa K-6. Printzipio etikoak K-7. Elkarbizitza positiboa K-9. Parte-hartze demokratikoa	6. Barne-komunikazioan aldaketak gauzatu.	Zenbat irakaslek irakurtzen dituzten mezuak	•			
			Zenbat irakaslek irakurtzen duten buletina	•	•		
7.H	K-4: Lidergo partekatua K-9: Parte-hartze demokratikoa K-10: Kanpo harremanak	7. Familia eta inguruko ikastetxe elkarte eta abarrekin elkarlean aritzeko betiko bideak hobetu eta berriak sortu	Zenbat ekintza eta zenbat partaide egon diren Jarduera Planean	•	•		
			Zenbat elkarterekin egin diren ekitaldiak elkarlanean	•	•		
			Zenbat bisita egin diren inguruko ikastetxeetara	•			
8.H	K-1. Plangintza estrategikoa K-2: Eraldaketarako antolaketa K-6: Printzipio etikoak	8. Azpiegiturak berriztu eraikinean zein kanpoaldean	Zenbat obra egin diren	•	•	•	
Hezkuntza Sailaren ildoak:	K-3: Lidergo pedagogikoa K-4: Lidergo partekatua	9. Elkarbizitza hobetu	Zenbat ekintza eta tailer egin diren Bizikidetzaren Planaren barruan	•	•		

